

* Hizpideak

Erantzuteko eskubidea

Ainara Gorostitzu
agorostitzu@berria.info

Erabakitze aukera. Erabakitze eskubidea dute usurbildarrek. Hondakinak nola jasotzea nahi duten erabakitzen ari dira atzo eta gaur. Azken urtebetean bezala atez ate, lau edukiontzien bidez, edo bosgarren edukiontzi bat ezarrita. Hiru aukera horietako bat hautatuz herritarrek eurek erabaki ahal izango dute nola kudeatu nahi duten eurek sortutako zaborra, bete beharrekoa izango baita atzo eta gaur bozen bidez hautatuko dutena.

Atez atekoarekin jarraitu ala ez, Usurbil izango da lehen euskal herria erreferendum bidez aukeratuko duena zabor bilketa sistema. Gainontzeko herri gehienetan badirudi hondakin bilketak «berez» gaur den bezala izan behar duela. Eredu izan da Usurbil. Eredu, sistema berritzaile bat probatzen. Eta eredu, sistema horrekin jarraitu ala ez herritarrei erabakitze aukera ematen.

Akaso, beste herrietan galdetu diete alkateek herritarrei zabor bilketaz?

Akaso, errauste planta ezarri ala ez erreferendum bidez aukeratu ahal izango ote dute herritarrek?

Hitz beste
Anjel Lertxundi

Adinean aurrera

Adinean aurrera, bizitza laburtzen doan neurri berean doa ugaltzen egun ezingo dituzun gauzen zerrenda, beteko ez dituzun ametsena.

Adinean aurrera, gero eta gehiago kostatzen da plaza publikora irtetea. Gero eta urrutiago dago plaza, eta gero eta arrotzagoa egiten da bertako musika, gero eta baldarrago zaude dantzarako.

Adinean aurrera, bizio txikiak gero eta garrantzi handiago hartzen dute, bertute handiek gero eta erakarmen txikiagoarekin egiten dizute eraso.

Adinean aurrera, zure ingurukoek uste dute errealtate apartatzen ari zarela, baina egokitzen ari zara, errealtatea deitzen dugun hori ere adinean aurrera baitoa gutariko bakoitzaren neurria eta martxara egokitzen.

Adinean aurrera, gero eta hurbilago ikusten duzu sekula irakurriko ez duzun gutunaren etorrera.

Adinean aurrera, gero eta sarriago jartzen zara malenkoniatsu eta sentimental.

Adinean aurrera.

😊 Adur



Gerra Zibila eta Afganistan

Patxi Juaristi
Soziologoa

Nola kalkulatu gurek sortzen dituzten «zeharkako kalteen» ordainak? Zenbat balio dute erasoetan hiltzen diren umeen bizitzek? Eta gerrek sortzen dituzten arazo ekonomiko, sozial, kultural eta psikologikoak?

Euskaldunok zerbaite badakigu gerren ondorioei buruz. Izan ere, Gerra Zibilak (1936-1937) gaur egun ere eragina duten kalteak sortu zituen Hego Euskal Herrian. Otxandio (1936ko uztailak 22), Bilbo (1936an eta 1937an), Markina-Xemein (1936ko urriak 20), Durango (1937ko martxoak 31), Gernika (Apirilak 27), Galdakao (maiatzak 19) edo beste hainbat herriren aurkako frankisten bombardaketek hainbat etxe, azpiegitura eta eraikin txikitu zituzten, galera material izugarriak sortuz. Enpresak, negoziak, tabernak eta dendak ere itxi

ziren betirako, frankistek bahitu zituztelako, bombardaketetan apurtu zirelako edota jabeak eta langileak frontean, kartzelan, langileen batailoietan edo ihes eginda zeudelako. Arrazoi berberengatik, nekazaritza ere lur jota gelditu zen. Ondorioz, herritarren zein udalen ekonomiak oso kaltetuak gelditu ziren, eta herritarrei lan eta urte asko kostatu zitzaizen egoera hari buelta ematea.

Gerraren galera ekologikoak aztertu gabe daude oraindik, baina, zalantza gabe, garrantzitsuak izan ziren. Bombardaketen ondorioz, Kalamuako, Intxortetako, Artxandako eta Gorbeiko hainbat baso erre eta apurtu ziren, eta mendi askoren itxura aldatu zen, metrailera-habiak, lubakiak, bideak eta gotorlekuak egiteko.

Galera kulturalen artean, kontuan hartu behar da eskolak itxita egon zirela hileetan, herrietako bizitza kulturala gelditu egin zela, eta, gerra ostean, euskal kultura eta euskara debekatuak izan zirela. Gainera, hainbat baserri zahar hondatu eta desagertu ziren, balio historikoa duten

eliza, komentu eta jauregik kalte handiak izan zituzten eta hainbat liburutegi, artxibategi eta artelan galdu ziren betirako.

Gerra Zibilak galera sozial larriak ere eragin zituen: familiak desagaturatuta, umezurtzak, azokoen arteko salaketak eta ikusi ezinak... herritarren artean mesfidantza, beldurra eta lotsa nagusitu ziren, eta gizarte kohezioa guztiz apurtu zen.

Dena dela, Gerra Zibilaren ondorio negatiboak gizakien heriotzak eta giza eskubideen aurkako erasoak izan ziren. Frontean borrokatzen, bombardaketetan, fusilatuta edo kartzeletan gaixotuta, 13.000 bat hil ziren — 6.000 fusilatuta zituzten atzeguardian eta 7.000 hil ziren frontean —. Gainera, frankistek mila-kapertsona kartzelan sartu zituzten oso baldintza txarretan, emakumeak bortxatu zituzten, gizon zein emakumeak debaldelako lanak egitera behartu zituzten eta galtzaileak mila erataru umiliatuak izan ziren.

Horrek guztiak arazo psikologiko ugari sortu zituen herritarren artean.

Gara hartan umeak izan zirenekin hitz egitea besterik ez dago bizitako samina oraindik ere hor dagoela konturatzeke. Gerrak apurtu zituen familia askok euren bizitzak berreraikitzen ahalegindu ziren, baina kalte sinbolikoak, oroimen mingarriak eta frustrazioak hor jarraitzen dute. *Gaizkileen hezurrak lur azpian gordetzen dira, baina euren kalteak ez.*

Otsailaren erdi inguruan, NATOk talibanen aurka *Moshtarak* izeneko operazioa hasi zuen Afganistango eskualde batzuetan. Operazioa hasi zenetik, hainbat taliban eta NATOko soldadu hil dira, baina baita zibil errugabe ugari ere. Eta NATOk berehala eskaini du *zeharkako kalte* horiek «konpontzeko» formula: haur edo heldu bat hilez gero, 1.100 eta 1.800 euro arteko kalteordaina; zaurituei 450 eta 1.100 euro artean emango dizkie; ibilgailua hondatuz gero, 400 eta 1.800 euro artean, eta lur sailak hondatuz gero, 35 eta 180 euro artean.

Bizi garen gizarte kapitalista

honetan, gerrekeragiten dituzten zibilen heriotzak «zorigaitzoko istripuztat» hartzen dira, eta, materialismoaren agindupean, euro apur batzuk jartzen dira mahai gainean, «zeharkako kalteak» sortzen duten samin guztia konponduko dutelakoan. *Urrezko zelak anitz balio, baina ez astoa zalditzen.* Ahantzi egiten da maiztzen den pertsona baten galera dirutan neurtu ezin daitekeen balio sinbolikoa duela. Are gehiago, kalte-ordainak zehazten dituztenak ez dira konturatzen gerrek, kalte ekonomikoak ez ezik, kalte sozialak, psikologikoak, ekologikoak, eta kulturalak ere sortzen dituztela, eta horiek epe luzean ondorioak izaten dituztela; alegia, gatazka armatuek diruarekin konpondu ezin daitezkeen eta gizartei behar bezala aurrera egiten uzten ez dituzten ondorioak sortzen dituzte.

Afganistango kalteak dirua behar dute euren ekonomiak eta bizitzak berreraikitzen hasteko, baina baita elkartasuna, oroimena, duintasuna, eta euren saminarekin bat egitea. Eta hori baino garrantzitsuagoa dena: gerraren sakoneko ondorioak konponduko dituzten irtenbideak behar dituzte. *Bakea ez da diruz erosten.*